


DONOSTIA / SAN SEBASTIÁN 2016
EUROPAKO KULTUR HIRIBURUA
CAPITAL EUROPEA DE LA CULTURA



Altzoko haundia

AHOTSAK

topic.



SARRERA

Txotxongiloak, haurren korua, bakarlariak eta instrumentisten talde txiki bat biltzen dituen haurrentzako opera hau abesbatzarako musikan eta euskal ahozko narratiban dago oinarrituta. Gaur egungo ekarpen plastikoz eta eszenikoz osatua dago, eta historian zehar musikarekin horren ondo bat egin duen txotxongiloen artea jasotzen du, hainbat adibide esanguratsuren bidez; esaterako, Joseph Haydnek eta Henry Purcelllek txotxongiloetarako idatzitako opera barrokoak, txotxongiloetarako operen hainbat eta hainbat egokitzapen (Txirula Magikoa eta Hansel eta Gretel, besteak beste) eta gaur egun Asian edo Afrikan aurki ditzakegun herri-ikuskizun tradizionalak.

Aurrekariak

Proiektuan, lehenik eta behin, operaren disko konpaktu bat argitaratu zen; 2013ko urtarrilaren 4an, horren kontzertuko bertsioa eman zen San Telmo museoa. 2014ko urtarrilean, obraren aurre-produkzioari eta, batez ere, txotxongiloak egiteari ekin zitzaion. Irailaren 26an estreinatzekoa da Charleville-Mézières, Europako txotxongilo-jaialdirik ospetsuenean.

Egileak

Koldo Izagirre idazleak idatzi du libretoa, David Azurzak konposatu du musika, Nestor Basterretxea artistak egin du txotxongiloen diseinua eta eszenografia, eta Emmanuel Márquez Peralta mexikar profesionalak zuzendu du antzezpena.

Eszenaratzea

Obra honen bi antzezpene egingo dira: bat Tolosan, euskarazko eta gaztelaniazko bertsioetan (Europar antzeztuko da), eta bestea Mexiko Hirian (Isabela Corona antzokian emango du denboraldia, eta Latinoamerikako herrialdeetatik egingo du bira). Bi antzezpenak autonomoak izango dira, eta antzezlari-talde propioa izango dute.

Taula gainean ariko diren txotxongilolariak eta bakarlariak finkoak izango dira, baina opera ematen den herriko haurren abesbatzak muntaketan parte hartuko du, bai eta instrumentisten taldeak ere.

GIZONA ETA HAREN PAISAIA

Hala obraren abiapuntua nola narrazioaren ildoak Gipuzkoako Migel Joakin Eleizegi Arteaga *Altzoko Haundia* (1818 - 1861) pertsonaia mitikoaren bizitza eta ibilerak dira.

Bakartasuna, desberdinarenganako errespetua, haren esplotaziorik eza, naturarenganako maitasuna, xalotasuna, prestutasuna eta adeitasuna iradokitzen dituzte pertsonaia desberdin baina gizatasun beteko horren bizimodua jorratu duten poesiak eta musikak.

Altzo Gipuzkoaren bihotzean dago, Donostiatik 35 kilometrorera eta Tolosatik 6ra. Mendi garaiek eta baso mardulek inguratzen dute, eta nonahi ageri dira uztarako lurak dituzten baserriak eta mendietatik behera doazen erreka gardenak.

Hantxe jaio zen erraldoia, Ipintza Zarra baserrian, 1818ko uztailaren 10ean. Zume-sail zabalak lantzen zituzten baserri hartan. Migel Joakin Eleizegi Arteaga bederatzi anaiaren arteko laugarrena izan zen. Ezer gutxi dakigu, ordea, haren haurtzaroz; 10 urterekin ama hil zitzaiola besterik ez.

Gaztarora arte, normal-normal iragan zitzaion bizimodua: landan lan egiten zuen, pilota-partidak jokatzen zituen eta igandean mezetara joaten zen, nahitaezkoa baitzen hori Euskal Herrikoa bezain gizarte erlijioso hartan.

Lasaitasun hori, baina, apurtu egin zen Migel Joakinek 20 urte bete zituenean: gaitz bitxi batek jo zuen, eta neurririk gabe hazten hasi zen.

2,42 metro neurtzera eta 203 kilo pisatzera iritsi zen. Zabalera ere sekulakoa zuen; izan ere, esku batetik bestera, besoak zabalik, 2,42 metro luze zen, eta haren oinek 52 zentimetro neurtzen zuten.

Ospe handia izan zuen bere garaian; Europa erditik ibili zuten jendaurrean erakusten, eta, besteak beste, Elisabet II.a Espainiako erreginak, Luis Filipe I.a Frantziakoak eta Viktoria Erresuma Batukoak hartu zuten.

Ez da harriztekoa jende arruntaren neurrira egindako mundu hartan Migel Joakin deseroso sentitzea, are gehiago bizimodu lasaia izatea baino nahi ez zuenean. Konfesatzera makurtu ohi zenean, apaizak zutik jarri behar izaten zuen, gertuago egoteko; Tolosara egurra saltzera zihoanean, soina hainbeste ateratzen zitzaion orgatik, non guztiak haren itzelezko irudiari begira geratzen baitziren.

Ezagutu zutenek haren izaera adeitsua eta ona gailentzen zuten, baina baita zerion tristura ere, eta, batik bat, haren bakartasuna. Bere idatzietako batean, "naturaren munstro" izendatu zuen bere burua.

Itxuraz gizon bizargabea zen, argala eta proportzioduna, nahiz eta pertsona altuek proportziorik gabeko gorputz-adarrak edota itxuragabetasunak izaten dituzten oro har. Langile fina zen, eta, ziotenez, oso trebea baserriko lanabesak konpontzen, saskiak egiten eta mugak bereizteko hormak altxatzen.

Hil ostean ere, haren oroitzapenak luzaroan iraun du Euskal Herrian; haren jaioterria, gainera, "Haundiaren" irudiari lotzen zaio beti. 1861eko azaroaren 20an hil zen, 43 urte zituela. Altzoko hilerrian lurperatu zuten; alabaina, ostu egin zuten haren eskeletoa, eta uste da Ingalaterrako museoren batean dagoela.

Espainiako errekorra dauka garaierari dagokionez. Ondoren, Agustín Luengo Capilla (1826-1854) dago, Puebla de Alcocerren (Extremadura) jaiotakoa; hark ere gigantismoa izan zuen, eta 2,35 metro neurtzera iritsi zen.

SINOPSISIA

Koldo Izagirre, testuaren egilea

<http://www.basqueliterature.com/es/Katalogoak/egileak/izagirre>

Gipuzkoa txikiko herririk txikienetako batean, Altzon, erraldoi bat sortu da: Migel Joakin. Mutil arrunta da, baina, gaitz bitxi baten ondorioz, hazi eta hazi egin da erraldoi bihurtu arte: Altzoko Haundia bihurtu arte.

Berri horrek erakarrita, Altzora etorri da HuyFu pirata, mutil-puskaren gurasoei kontratu bat eskaintzera. Mundu osotik eraman nahi du, jendea erakartzeko: "negozio ona izango da denontzat...".

Erakargarri gisa aurkeztuko dute Europa osoan zehar, jendearen eta beronen harrigarri; Donostian lehenengo, eta Bilbon gero; Madrilen ondoren, Maria Kristina erreginaren aurrean, zeinekin guztiz maiteminduko baita; eta Parisen gero, Luis Filipe erregearen aurrean.

Huyfu baino are maltzurrago diren beste bi piratak itsasontziz esetsiko diete bidaia gorabeheratsu batean, eta, azkenean, Londreraino ailegatuko dira. Beste erraldoi bat ezagutzera joan dira hara; Liverpoolgoa da hura, eta haren aurka borro-

katzera behartuko dute Altzokoa, sortu berri den kirol batean: boxeoa. Gure Migel Joakinek Liverpoolgo erraldoia garaituko du, eta hura Altzokoaz maiteminduko da. Gero, egiatan emakume bat dela deskubrituko dute. Hori dela eta, Huyfu enpresariak pozez igurtziko ditu eskuak, erraldoi bien seme-alabek bere negozioaren aukerak areagotuko dituztelakoan.

Migel Joakinek ez du ezer jakin nahi horretaz guztiaz, oraindik ere bere Maria Kristinaz maitemindurik baitago. Halatan, Altzora bueltatzea erabakiko dute, baina atzera segika ibiliko zaizkie bi pirata maltzurak. Eraso egingo diete, baina, azkenean, onik aterako dira liskarretik.

Etxera itzultzean, herriko jendeak munduan ikusi eta ezagutu duen horren berri eman diezaiola nahiko du. Migel Joakin, ordea, oso goibel dago, etsita, eta betiere maiteminduta. Handik gutxira hilko da, baina haren irudiak eta, batik bat, haren gizatasunak bizirik iraungo du bere herrikideen bihotzean; bereziki, ondoena ulertzen eta gehien maite duten haien bihotzetan: haurretan.



ESZENA ZUZENDARITZA

Emmanuel Marquez Peralta
www.figurat.net

Txotxongiloetan espezializatutako eszena-zuzendari gisa eman dudan ibilbide honetan guztian, egiaztatu dut opera espazio ezin hobea dela diziplina hori lantzeko.

Musikaren bidez (eta, batez ere, txotxongiloekin abestutakoaren bidez), zuzeneko lotura eratzen da ikuslearen samurtasunarekin eta irudimenarekin. Mugitzen diren kolore eta formek operaren esperientzia ulertzeko eta horretaz goatzeko zubiak eskaintzen dizkiete ikusle txikienei.

“Duela hamabost urte lehendabizikoz Titirijaira etorri nintzeanean, interes berezia hartu nion euskal kulturari. Horri esker, hainbat euskal artista ezagutu ahal izan nituen, eta Euskal Herrian lehenengoz zuzentzeko aukera izan nuen.

Esperientzia hori mugarrria izan zen nire ibilbide profesionalan, eta are gehiago sendotu zuen txotxongilo-antzerkirako nire grina. Nik, berriz, operako zuzendari gisa hasi berri nintzen hartan, artean gutxi esploraturiko lengoaia baterako aukera mordoa zabaldu zidan tresna bat aurkitu nuen.

Konpainia bat sortu nuen, musikaren eta plastikaren arteko harreman hori esperimentatzeko eta garatzeko, baina hori ezin izan nuen inoiz txotxongilo-opera batekin egin.

Altzoko Haundia ezagutu nuenean, bestelako pertsonaia bat ikusi nuen Migel Joakinengan: munstroa balitz bezala erakusten zuten, baina bihozbera zen, apala, anbizioren gabekoa, bere inguruaren maitalea eta euskaldun-euskalduna. Obra honetan, pertsonaia horren bitartez, desberdintasuna, bazterkeria, ezezagunarenganako beldurra, naturarenganako errespetua, animalienarenganako maitasuna eta beste jorratzen dira.

Musika modernoa, soila, haur-abetesbatza batean oinarritutakoa eta euskarazkoa entzutean, sentitu nuen ezinbestekoa zela antzezlanean, besteak beste, Oteizaren, Txillidaren, Mendibururen, Amableren, Sistiagaren, Ruiz Balerdiren, Zumetaren eta Basterretxearen euskal eskultura garaikidearen plastika, formak eta indarra batzea.

Eta hortxe sortu zen magia: Nestor Basterretxeak Haundiari itxura emateko proposamena onartu zuen”.



DISEINUAK

Nestor Basterretxea (Bermeo, 1924-2014)

Eskultore eta margolari euskalduna. 1936an, Frantziara erbesteratu zen familiarekin batera. II. Mundu Gerra piztu zenean, Basterretxea familia Buenos Airesera heldu zen bidaia luze baten ondoren, eta hantxe jarri ziren bizitzen, Espainiako beste hainbat iheslariren moduan. 1952an, 28 urterekin, Espainiara itzuli zen eztei bidaiari, eta Arantzazuko (Oñati) basilikako kriptako horma-pinturak egiteko lehiaketa irabazi zuen. 500 metro koadroko lana zen, 18 horma-iruditari bantatua. Han, Jorge Oteiza eskultorearekin jarri zen harremanetan. Lanean urtebete eman eta gero, 11 horma-irudi eginak zituenean, basilikako frantziskotarrek ezabatu egin zuten haren lana gau batez, desagokia zelakoan.

Berrogeita hamarreko hamarkadaren amaieran, Espainiako sormenaren alorreko abangoardiako talde garrantzitsuenetan parte hartu zuen, Oteizarekin, Txillidarekin, Mendiburuarekin, Ruiz Balerdirekin, Amable Ariasekin eta Sistiagarekin, besteak beste: 57 Taldean eta Gaur taldean, hain zuzen ere. 1963tik aurrera, hamar urtez, diseinu industrialaren arloan jardun zuen, hotelak dekoratzen eta altzariak diseinatzen batez ere. Horrez gain, argazkigintza esperimentalarekin ere aritu zen, eta erakusketa bat jarri zuen Bilbon 1969an.

Hirurogeita hamarreko urteetan, Euskal Herriko arazoak jabetzen hasi zen, eta euskal ideia adierazteari ekin zion, eskultoretan haritzaren zurezko habe zaharrak erabiliz. 1982an, zazpi adarreko zuhaitza irudikatzen zuen haren eskulturak irabazi egin zuen Eusko Jaurlaritzak antolatu zuen ideien lehiaketa, eta hemizikloaren leku gailenean jarri zuten. 1987ko irailean, banakako lehenengo erakusketa antolatu zuen Madrilan, Arte Garaikidearen Espainiako Museoan. 140 lanek osatzen zuten antologia hura, eta, eskulturen, pinturen, marrazkien eta collageen bidez, haren jardueraren aldi desberdinak biltzen zituen.

1988ko abenduaren 21ean, *Bakearen usoa* obra inauguratu zen; zazpi metro garai eta bederatzita zabal zen, eta Donostiako Zurriola pasealekuan jarri zuten, Anoeta estadiotik gertu. Haren beste obra bat, *Euskal artzainaren omenezko monumentua*, Reno hirian dago, Ipar Amerikako Atlanta estatuan, 1989ko abuztutik. Nazioarteko hogeita hamar artistaren artean hautatu zuten monumentu hori egiteko, eta Estatu Batuetan jarri zuten Euskadiko lehenengo eskultura izan zen.

1997an, José Antonio Ardanza lehendakariak haren beste eskultura bat inauguratu zuen Buenos Airesen, Argentinako euskaldunek hiriburuari egin zioten ekarpen gisa.

Bestalde, haren eskultoretako batzuk zenbait saritan ematen dira; esate baterako, Lirikaren Urrezko Apolo Sarian (1990etik ematen da sari hori Bilbon), Eusko Jaurlaritzaren Turismo Sustapenerako Sarian eta Abesbatzen Europako Sari Nagusian. Eskulturen eta pinturaren esparruan ez ezik, zinemagintzan ere aritu zen; haren hitzetan, zinema "hiru kilometroko mural bat" da. Horrela sortu ziren *Operación H* (1963), *Pelotari* (1964) eta *Alquézar, retablo de pasión* (1965) film laburrak. Azken biak Fernando Larruquertekin

batera zuzendu zituen, bai eta *Ama Lur - Tierra Madre* (1966) film laburra ere; euskal paisaiaren eta gizakien gaineko ikuspegi ederra jorratzen du. Bestalde, dokumental batzuk eta kultura prehispanikoei buruzko serie bat ere egin ditu.

2013ko irailean, Gipuzkoako Urrezko Domina eman zioten, eta 2014ko uztailan hil zen.





EUSKAL MUNTAKETAREN TXOTXONGILOAK - LA ENANA NARANJA + Iñaki Mata

<http://laassistens.blogspot.com.es>

La Enana Naranja txotxongiloen tradizioen azterketan eta eszenaratzean espezializaturako txotxongilo-konpainia bat da. 2002an ekin zion ibilbideari, konpainia profesional gisa. Urteotan guztietan, txotxongilo-obren trilogia bat taularatu du: *Lolo encargo 215* (2003), *Inmundo doblador de barrotas* (2008) eta *Ma corazón de locomotora* (2010). Horrez gain, txotxongiloak egiteko, manipulatzeko eta taularatzeko teknikak ikertzeko behin-behineko laborategiak eta laborategi iraunkorrak antolatu ditu. Konpainiak txotxongiloak taularatzeko modu berriak aurkitu nahi ditu, arte hori birsortu eta gaur egungo garaian kokatu.

2008an, Bizkaia Antzerki Ikastegiak (BAI) konpainiako bi kideri, Sandra Fernándezi eta Iker Garciari, bere plantillan sartzea proposatu zien, ikastegiko Txotxongilo Laborategiko irakasle eta koordinatzaile jardun zezaten, txotxongiloak sortzeko eta manipulatzeko lehen eta bigarren mailako eskolak ematen; bada, aukera paregabea zen. Lehenengo aldiz, txotxongiloak ikastetxe bateko ikasgai izango ziren. Laborategiak arrakasta izugarria izan du, eta txotxongiloen antzerkia ikasgai gisa jarri dute ikastegi horretan. 2012an, ikastegiko ikasleek *Hamlet* taularatu zuten txotxongiloen bertsioan, Barakaldo Antzokian.

TXOTXONGILOGINTZA

Menina Tailerra
www.marionetasmenina.es

1983tik, Idoia Seijok eta Jonan Basterretxeak Hondarribiko beren tailerrean lan egiten dute, eskulangintzarako daukaten trebetasunarekin antzerkirako hamaika pertsonaia bakar eta berdingabe sortzen. Inork ezin ditu haiek baino hobeto ulertu eta txotxongilo gisa hezurramitu Nestor Basterretxeak diseinaturiko pertsonaia.

Gure konpromisoa da txotxongiloen antzerkia indartzea bizi garen lurralde honetatik, sormen garaikidearen ezaugarri propioa sortuta.

Txotxongiloen artea berritzeko, inpaktua lortu nahi da, gure herriaren kezka sozialak eta kulturalak islatuko dituen inpaktua, kultura eraberritzen lagunduko duena eta txotxongiloen antzerkia bermatuko duena, bizitza osoa arte horri emanda igaro ondoren.

Oraindik ere gure antzerkiaren eta ikusleen arteko lotura-bideen bila gabiltza, eta uste dugu antzerkia interpretearen eta ikuslearen arteko batasuna dela; kontuak ditugu esateko, eta gaitasun humanoa eta artistikoa hori egiteko.

“Hauxe da txotxongiloaren paradoxa: antzezleak baino adierazmen-gaitasun handiagoa du, baliabide gutxiago dituelako; zabalago ematen digu bizitzaren berri, berak ez daukalako bizitzarik; amesten laguntzen digu, zurezkoa delako; eta erantzun bat ematera behartzen gaitu, mutua delako” André Charles Gervais.

ALTZOKO HAUNDIA ESZENARATZEA

Nestor artista bikaina izan zen, dudarik gabe. Artearen esparru guztietan esperimentatu zuen, baina, betidanik atsegin izan zituen arren, ordura arte inoiz ez zuen txotxongilorik egin. Bestelako txotxongilo batzuk zituen buruan: eskularru-txotxongiloak, giñolak, katxiporra-txotxongiloak...

Lehenengo aldia zen txotxongiloen antzerkiekin lan egingo zuena, eta erronka izan zen harentzat: bere estilo abstraktua eta forma iradokitzaileak baztertu gabe, musikari lagunduko zion kode bat sortu behar zuen, haurrei Haundiaren unibertsoa argitzen lagunduko ziena.

Nestorrek proposatu zuen erraldoia izan zedila itxura antropomorfikoa zuen pertsonaia bakarra, munstroa istorioko bene-benetako gizakia delako metafora gisa. Gainerako pertsonaiek, forma propioen arabera, beren izaera adieraziko lukete istorioaren barruan.

Erraldoiak eta txikiak direnez obraren gaia, eszenaratzean neurriekin eta proportzioekin jolastea pentsatu da. Txikitik handira joango gara, lehenengo eszenatik (paisaia galdutako baserri txiki bat izango da) azken eszenara arte (2,42 metroko txotxongilo batek antzetzuko du, Migel Joakinek hori neurtzen baitzuen).

Nestorren diseinuetan oinarrituta, maketak eta prototipoak egingo dira; txotxongilolariek figurek mugitzeko dituzten aukerak eta bakoitza erabiltzeko teknika ezberdinak aztertuko dituzte. Mekanismo, material eta teknika guztiak probatu ondoren, behin betiko txotxongiloak egingo dira. Agertokiak 9 metro zabal, 7 metro sakon eta 7 metro garai izan behar du. Eremu eszenikoa ziklorama-mota batek zaituko du; horrek, halaber, egiteko garrantzitsua izango du eszenografian.

Izan ere, horren gainean proiektzioak, testurak eta musikarien edo figuren itzalak irudikatuko dira.

Zikloramaren atzean, hainbat garaieratan, musika-taldea egongo da, honako hauek osatua: haurren abesbatzak, Orfeoi Txikiak (30 koro-kide artean izango ditu), 5 instrumentistak, 3 bakarlarik eta zuzendariak.

Aurrean, proszeniora arte, txotxongilolariek eta txotxongiloak ariko dira.

Kokapen eszeniko horrekin, musikariak beste leku batean egongo dira opera tradizionalarekin alderatuta (erromantizismoan, zulogunean zeuden; Erdi Aroan, baloietan; elizetan, koruan). Horrela, presente egongo dira eta jendeak ikusi egingo ditu, baina ez dute galaraziko edo zailduko eremu eszeniko osoa hartuko duten txotxongiloenganako arreta.

Taula gainean honako elementu hauek egongo dira: 4 forma edo erabilgarri gurpildun (bakoitza aurpegi bikoitzarekin), bi mahai/teatrotxo eta bi gaza. Elementu abstraktu eta iradokitzaile samarrak dira; zenbait kasutan, pertsonaia jakin batzuen jantzien edo giroaren parte izango dira, eta panpinen koloreekin kontrastatuko dute. Erabilgarriez gain, aulkiak eta zuzendariak, orkestrak eta abeslariak behar dituzten atrilak egongo dira eszenografiaren barruan, kontzertuaren bertsiorako.

Lehenengo agerraldian, mendiak irudikatuko dira bi erabilgarriekin. Urrutian, baserria agertuko da, eta, itzal artean, familia eta haurra ikusiko ditugu.

Garrantzitsua da ikustea guztia paisaia ilun baten erdian dagoen etxetxo baten barruan gertatzen dela. Eszena horretan





agertuko dira obra osoko panpinarik txikiak; agian, itzalezko edo eskularruzko txotxongiloak. Gazan koruaren silueta proiektatuko da. Hurrengo egunean, paisaia osoa ikusiko da, eta leihoetatik Joakin agertuko da. Gainerako haurrak eskularru-txotxongiloak dira, eta, denborak aurrera egin ahala, Joakin handiago agertuko da.

Gazarekin, agertoki guztia ilundu eta dantzan eta kantuan egiten duen Pirata agertuko da. Beste plano batean, abeslariaren edo abesbatzaren silueta ikusiko dugu.

7. agerraldian, kontratuarenean, bi erabilgarrik eta mahai batek sukalde baten barrualdea irudikatuko dute. Pertsonaien tamaina aldatu egingo da: handiagoak izango dira, eta hagaxka-txotxongiloak izango dira, zuzenean manipulatzekoak: aita, anaia, ama, pirata, Joakin (altuena), txipiroia eta sugea.

8. agerraldian, mendien silueta ikusiko dugu, Joakinen etxea ageri dela, eta, beste plano batean, Joakin bera ikusiko dugu, handiago, zuhaitz baten siluetaren alboan. Zurezko zalditxoak sartuko da; gainean jarriko da, eta baserria urruntzen ikusiko dugu. Gazan abeslariaren itzalak nabarituiko ditugu, eta eszena bakarrik geldituko dira.

10. agerraldian, bi erabilgarrik Donostiako kaleak irudikatuko dituzte, eta leihoetatik txotxongilo txiki batzuk agertu eta kantuan hasiko dira; hizketan ariko dira enpresariarekin eta Joakinekin (kontratuaren eszenako tamaina bera izango du). Ikusleak begira ari direla, elementuok aldatu eta figura osatuko dute, eta Espainiako erreginarekin gortea desagertu egingo da. Antzeko elementu batekin, Frantziako erregearen gortea sartuko da; elementua haren kapa edo alfonbra izan daiteke, eta haren lepoa izugarri luzea bihurtuko da ekintzak hala eskatzen duenean.

14. agerraldian (itsasontzia itsasoan dabilenean), agertoki osoa gazaz eta itsasoa irudikatuko duen oihal batez estaliko da; oihal horrek, era berean, itsasontzia eta ekaitza mugituko dituzten txotxongilolariak estaliko ditu. Zalditxoak eta txipiroia ere agertuko dira. Agerraldi horrek puxikak izango ditu lagungarri, behar den testura emateko.



Oihalak kentzean Londres agertuko da. 15. agerraldian zirkulu moduko bat irudikatuko du; panpina txikiak batetik bestera ibiliko dira, oihuka (beste elementu batean, eta erdian mahaia egongo da), bi erraldoiak borrokan ari diren bitartean. Manipulazio zuzeneko panpinak izango dira (70 cm-koak). Elementuak beste era batera jarrita, hurrengo agerraldirako espazioa sortuko da, eta atzeko gazan erreginarekin eta Haundiaren amaren siluetak ikusiko ditugu; gero, beste plano batean, Alpagata eta PocaPlata piratak.

17. eszenan itsasoaren eszenako elementu berberak erabiliko dira, eta, horiek kentzean, berriz ere baserria ikusiko dugu, gerturatzen eta espazioa aldatzen. Azkenean, Joakini ongietorria egingo diote Altzon: bere gurasoak, anaia eta haur batzuk agertuko dira.

21. eszenan, hilerria egiteko, gazetako bat erabiliko da beste plano bat sortzeko; piratak ikusiko ditugu, azpijokoan, itzalezko antzerkian. Eszena berriro argitzean, albo bietan erabilgarriak jarriko dira, eta berezko tamainako Haundia agertuko da (2,40 metrokoa), 4 txotxongilolariek manipulatuak. Atzeko gaza altxatu, eta koruko haurrak ikusiko ditugu; operako azken doinuak Haundiarekin batera abestera hurbilduko dira. Piratak ikusiko ditugu, azpijokoan, itzalezko antzerkian. Eszena berriro argitzean, albo bietan erabilgarriak jarriko dira, eta berezko tamainako Haundia agertuko da (2,40 metrokoa), 4 txotxongilolariek manipulatuak. Atzeko gaza altxatu, eta koruko haurrak ikusiko ditugu; operako azken doinuak Haundiarekin batera abestera hurbilduko dira.

ARGIZTAPENA

Xabier Lozano

<http://www.xabierlozano.com>

1988ko maiatzean hasi nintzen argiztapenaren munduan lanean, Euskal Telebistak argiztapen-laguntzaile gisa kontratatu nindueanean. Hurrengo urtean, argitze-teknikari aritu nintzen, eta 3 urte geroago, 1992an, lehendabiziko kontratua egin zidaten telebistako argiztatzailer gisa; 1996ra arte jardun nuen plantillan lanean.


Hiru urte horietan, etengabe ikasten aritu nintzen, denetarikoa telebista-saioak argizatzen: albistegiak, dramak, lehiaketak, magazineak...

1991. urtean hasi nintzen, emeki-emeki, antzerkirako argiztapenaren diseinuan lanean. Izugarrizko aldea zegoen urte haietako telebistaren argiztapenaren eta antzerkirakoaren artean, baina hori dibertigarri eta bizigarri zen; ezin uko egin, bada... 1999tik aurrera kokatu nintzen antzerkiaren lanbi-

dean, *El pianista del Océano*rekin (Valentziako Generalitatearen Arte Eszenikoen Argiztapen Onenaren Saria). Orduz geroztik, maiz jardun dut lanean zenbait teatro-konpainiarekin, batik bat Euskal Herrian; hala ere, aritu naiz Kataluniako, Valentziako eta Madrilgo konpainiekin ere.

Orain, berriz, Altzoko Haundia proiektuan sartuko naiz. Txotxongiloak, musika eta zuzeneko kantua batzen dituen istorio samur horrekin, ibilaldi alai bezain dibertigarri batean murgilduko naiz sormen-prozesu osoan, eta emaitza liluragarria lortu ahalko dut, erakargarri izango dena haurrentzat eta, noski, helduentzat (askoz errazagoa da azken horientzat erakargarri izatea!).

Mandazainak izaki, bidean topo egingo dugu aurki; bitartean, izan dezazuela argia lagun!





ALTZOKO HAUNDIA OBRAREN MUSIKA. TXIKIEN OPERA

David Azurza

www.oihuhau.com/autores/david_azurza.htm

Hurrek interpretatzeko antzerki-lan dezente idatzi ditut. Opera hau, *Altzoko Haundia*, haurrentzat konposatu ditudan beste hainbat obra bezala, bat dator nik neure buruari eskatzen dizkiodan zenbait baldintzarekin. Izan ere, eskakizun horiek bete nahi ditut hainbat arrazoi direla eta: ni neu konpositore gisa asebeteko nauen emaitza bat lortze aldera; abesbatzako zuzendari gisa neure koruarekin lan egiteko interesgarria izan dakidan; eta entzuleei eta, batik bat, haurrei (entzulerik zorrotzenak eta interesgarrienak dira, engainatu ezin direnak) erakargarri egiteko.

Nire ustez, obra orok interesgarri izan behar du interpretatzen duenarentzat eta, noski, entzuten duenarentzat. Zailtasunak, erronkak eta musika-jokoak bildu behar ditu, gainditu daitezkeenak baina lana eta ardura berezia eskatzen dutenak; finean, interprete gisa eta entzule gisa hazteko esperientzia bat eman behar dute. Interpreteei guztia egina ematen badiegu, esperientzia azalekoa izango da, lasterra eta, azken batean, aspergarria. Eta berdin entzuleekin: lanak ez badie interesik pizten, ez baditu erakartzen, ez baditu soinu, kolore, sentsazio eta sentimendu berriekin harritzen, ez dute obrarekin bat egingo. Entzuleari betikoa eta ezagun zaiona ematen badiegu, ez da harrituko, ez du interesik izango eta ez du entzule gisa eboluzionatuko (eta niretzat neuretzat ere, konpositore gisa, erronka izan da, musika-esperientzia paregabea eta konpositore-bilakabiderako beste urrats bat).

Altzoko Haundia, baina, egiaz opera bat da, ahozko, abesbatzako eta instrumentuzko atal txikiz osaturiko antzerki-narratio bat, testu bati lotuta egituratua. Alegia, pieza asko dira bakar baten barruan, bata bestearen barruan gordetzen diren errusiar panpinak balira bezala, ateratzen zozzen heinean harritzen zaituztenak. Hori dela eta, nire ustez, musika-ikuskizunek entzule gisa harrapatu behar zaituzte, zapore, testura eta zirrara desberdinak emanez. Horixe da erronka eta helburua: obrak, musikalki, zu atxikitzea eta barneratzea. *Altzoko Haundia* taularatzen denean, kolore, zapore eta musika-iradokizun horiek iradokizun eszeniko, fisiko eta erreal bilakatuko dira; hala, paperezko, telazko eta kartoizko txotxongiloak izaki bizidun bihurtuko dira, eta berriz gure barnealdera etorriko, eszenarekin, musikarekin eta argiarekin. Esperientzia bizia, bakarra eta berdingabea izango da, barruan geldituko zaiguna. Musikak zati handia hartuko du, bai, baina ez bakarra.

Espero dut musika-idazle gisa jartzen ditudan eskakizunak erakargarri, interesgarri eta iradokitzaile izango direla entzuleentzat, interpreteentzat eta hitzaren artista Kolto Iza-girrek osatutako istorio zoragarri horretan lan egin behar duten guztientzat. Artista horrek, bere armekin, jakin du nire bihotz musikala konkistatzen eta ezin konta ahala zirrara iradokitzen.

NARRAZIOAREN EGITURA

Istoria zirkuluan garatzen da: erraldoi bihurtzen den haur bat (joko plastikoa); munduko agertokietatik dabilen haur handi bat (pertsoneiaren humanizazioa); etxera itzuli eta haur bihurtzen den erraldoi ospetsua (anonimotasunerako itzulera).

TESTUINGURUA

Haundiak agertokian antezten eta abesten du, gaur egungo izar bat balitz bezala. Txalo asko jasotzen ditu, baina maitasun gutxi. Dirua emateko makina bat da, zirkuko erakargarri bat. Ez dauka lagunik.

Haren enpresariari, berriz, handitasunaren ametsa bete zaio, eta lau egunez eta lau gauza jarraika ibili ondoren harrapatutako basati bat balitz bezala aurkezten du...

BORROKA HANDIA

Migel Joakinek borroka batean baino gehiagotan dihardu: bere buruaren aurka, bere enpresariaren aurka...

Liskarrik gogorrena, ordea, Londresen izango du; XIX. mendeko borrokarik handiena dela iragarri dute. Emakume bat izango du aurkari, Mery Christine, bera bezain erraldoia, baina Migel Joakinek ez daki emakumea denik. Ez da Migel Joakin bezain gihartsua, baina eskarmentu luzea du boxeoan, Ingalaterran arrakasta itzela duen borroka berrian. Mery Christine bete-bete joko du... maiteminak. Ezkontzeko eskatuko dio, baina Migel Joakinek ezetz esango dio.

"Ura ekartzeko? Saskian?"

"Bai"

"Ura saskian ekarriz gero, galdu egingo da bidean!"

"Ez da galtzen; bidearen egarria asetzen du..."

"Bidearen egarria? Zer diozu, baina!"

Eta Mery Christinek barre egingo du, Migel Joakinez... Ez du ulertzen gure erraldoiaren xalotasuna.

Altzoko Haundia ezin da ezkondu Liverpoolgo Haundiarekin, haren enpresari HuyFu pirataren etsigarri. Dena planifikatua zuen... beste erraldoi batzuk izateko, erraldioen familia bat... a ze kontratu mordo sinatuko zuen Berlingo eta Moskuko zirkuetarako!

Orduantxe kontra egingo die gure heroiak bere enpresariaren interesei: "Altzora bueltatuko naiz!". Galdutako haurtzarora.

KONTRASTEAK

Tamainaren kontraste argia nabari da Haundiaren eta gainerako pertsonaien artean. Hori dela eta, askotariko antzerki-jolasak eta -apaingarriak egin daitezke; adibidez, eseri behar izatea aurrez aurre hitz egiteko, tente dagoela begiratzeak sortzen duen lepoko mina...

Kontraste bisual horrek, halaber, desberdintasun garrantzitsuago batzuk transmititzen ditu:

HIZKETA

Migel Joakinek goxo eta ez tiro hitz egiten du, eta ez bere ahotsaren doinuagatik bakarrik: natura eta animaliak maite ditu, horixe da haren mundua, berau naturaren fenomeno delako, eta haren ontasuna sentimenduz beteriko lirika batean islatzen da.

"Ez dago zertan hegazia hil luma bat eskuratzeko"

"Arbolak sufritu egiten du aizkora sartzen diotenean"

"Haizea nekatu egin da"...

Gauza txikiei erreparatzen dien erraldoi bat da.

ESPAZIOA

Erraldoiaren espazioa goragoko mundu bat da:

Agertokitik kanpoko luma bat edo zume batzuk hartzeko eskua altxatzen duenean, metafora bat sortzen du: ontasuna (maitasuna) posible den mundu bat dago (lainoetan, itsas honoan).

Gainerako pertsonaien espazioa beheagoko mundu bat da: Haundiaren bidez etekina atera nahi dute, sentimendurik gabeko bizitza batean. HuyFu pirata da horien guztien pertsonifikazioa.

Kontraste horien bidez, erraldoiaren irudiak maila sinboliko bat hartuko du.

MUSIKA

Musika orijinalak lagunduko du lan oso-osoa.

Irri-opera jostagarria eta sentimenez beterikoa izanik, zenbait unetan abestu egingo dute bakarlariek (pertsoneia nagusiek) eta abesbatzak. Koruaren zatia Orfeoi Txiki haurren abesbatzak interpretatuko du. Musika guztia David Azurzak konposatu du.

Azaldu den moduan, material dramatiko Haundiaren baitan antolatuta dago, harekiko kontrastean, eta tentsio dramatiko bidaia-esetsaldi bateko abenturen bidez sortzen da. Abentura horretan, adeitasunak gaina hartzen dio gaizto-tasunari; ez Haundiaren indarragatik, haren espiritu poetikoagatik baizik: gizon-puska laua eta tolesgabea da, baina badaki mundua zorrotz neurtzen. Ez ote da izango gaiztoak baino are maltzurragoa?

PERTSONAIA NAGUSIAK

HAUNDIA

Izugarri handia da, baina ez da munstroa.

Finean, gehiegi hazi den gazte soil bat da. Gainera, nahiago luke haurra balitz: urteak eman zituen ohean, eta hazi zenean ez zuen lagunik aurkitu. Galdutako haurtzaroa berreskuratu nahiko luke. Malenkonia betean bizi da; horixe du gaitz sendaezina.

Horren handia izanik, batzuetan eskua jaso eta agertokitik kanpo ateratzen du, eta guk ez dugu ikusten. Horrela, hainbat elementu, luma, zume eta abar eskuratzen ditu, maleta hodeietan edukiko balu bezala.

Otarregilea da, eta horixe gustatzen zaio gehien, zumezko otarreak egitea. Indar handia du, baina apenas baliatzen duen. Ez die jaramonik egiten probokazioei, bere indarraren beldur balitz bezala.

Ez du askorik hitz egiten. Hitz gutxikoa da, baina sakon mintzatzen da; bakartuta egon den urteek balio izan diote go-goeta egiteko.

HUYFU PIRATA

Kontrastea egiten du Haundiarekin, eta ez bakarrik neurriari dagokionez. Hitzontzia da, gezurti hutsa, bizkorra eta koldarra aldi berean.

Enpresari bihurtu ondoren, munduan zehar eramango du Haundia, eta jendeari aurkeztuko dio, protagonistari protagonismoa kenduz.

Azken batean, pertsonaia atsegina da: harroputza da, besterik ez. Baliteke, gainera, gaztetan zorte txarreko pirata izana.



POCAPLATA ETA ALPARGATA PIRATAK

HuyFuren etsai amorratuak dira, gaizkile bete-beteak. Erraldoia lapurtu nahi diote.

Ez dira asko agertzen, eta ia ez dute hitzik egiten, baina beti azaltzen dira izkinaren batean, arbola baten atzean, leiho batean... HuyFuren eta Haundiaren bazter guztietako ibilerak zelatatzen. Intrigaren muina dira: munstroaren eta enpresariaren gorabeheren ondoren sortzen den tentsio dramatiko, hain zuzen ere.

MARIA CRISTINA

Espainiako erregina da, Haundiak ezagutuko duen lehenengo emakume "desberdina".

Inoiz ez zitzaion otu ere egin emakume batek halakoak esango zizkionik... Maria Cristinak ez du gizon-puskaren malenkonia areagotu besterik egiten, eta hark gero eta maizago islatzen du hori, bere hasperen sarrietan: "Karabina! Maria Cristina!".

Erraldoiak bere neurriko jauzia egin du: galdutako haurtzarotik ezinezko amodiora. Gaixoa Migel Joakin!



Ekoizleak:



DSS2016.EU

topic.



Laguntzaileak:



ALTZOKO HAUNDIA

Donostia / San Sebastián 2016 Europako Kultur Hiriburuaren eta TOPICen arteko proiektua.